

2. ERANSKINA: HIRIAK, ARETOAK ETA ZIKLOAK

LINZ

Austriako ipar-ekialdeko hiri hau Danubio ibaiak zeharkatzen du. Austria Garaiko (Oberösterreich) hiriburua da eta hirugarren herrialde jendetsuena da, Viena eta Grazen ostean. 203.000 biztanle ditu hiriak eta 700.000 biztanle baino gehiago metropoli-eremuak.

BRUCKNERHAUS, INTERNATIONALE ORCHESTER ZIKLOA

Brucknerhaus Linzeko kongresu-zentroa da eta hiri horretako auzo batean jaiotako Anton Bruckner konposatzaileari zor dio izena. Eraikina Heikki eta Kaija Siren arkitekto finlandiarrek diseinatu zuten, eta 1974an inauguratu zuten.

200 bat emanaldi hartzen ditu urtero, eta horietan 180.000 ikusle baino gehiagok hartzen dute parte. Barne hartzen dituen jaialdi garrantzitsuenak dira Ars Electronica Festival (irail hasieran urtero izaten den musika digital, arte eta teknologia jaialdia) eta Brucknerfest (irail eta urri bitartean 1974tik antolatzen den musika klasiko jaialdia, egoitza nagusi Brucknerhaus duena).

Duen akustika bikainagatik da ezaguna aretoa eta nazioartean musika klasikoaren instituzio nagusietako bat bezala aintzatesten da.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak honako zikloan hartuko du parte: Internationale Orchester (<https://www.brucknerhaus.at/>).



MUNICH

Bavierako hiriburua eta Alemaniako hirugarren herria biztanle-kopuruari dagokionez (1.464.301). Isar ibaiak zeharkatzen du eta Alpe Bavariarren iparraldean kokatzen da.

HERKULESSAAL, MUSIKERLEBNIS ZIKLOA

Herkulesaal edo Herkules Aretoa Municheko Erresidentziaren (Bavierako erregeen hiriko jauregia) gunearen barruan kokatzen da. 1951 eta 1953 bitartean eraiki zuten Bavierako Luis I. erregearen tronuaren saloian, Festsaalbau hegalean, zeina Bigarren Mundu Gerran suntsituta geratu zen, Erresidentziaren zati handiena bezala. Herkulesen historia irudikatzen duen tapiz-sorta bati zor dio izena aretoak. Anberesen fabrikatu ziren tapiz horiek Bavierako Alberto V.ak 1565ean enkargatu zituen Dachauko bere jauregiko festa-saloierako.

Aretoak 1.270 eserleku ditu eta beste 180 toki zutik egoteko. Philharmonie berria eraiki duten arte Municheko kontzertu-areto nagusia izan da, eta oraindik orain Bavierako Irratiaren Orkestra Sinfonikoaren egoitza nagusia da, baita Bavierako Estatuko Orkestraren eta Municheko Orkestra Filarmonikoaren kontzertu batzuen eszenatoki ere.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Musikerlebnis (<https://www.musikerlebnis.de/>) zikloan hartuko du parte, hirian tradizio eta prestigio izugarria duen zikloa.



BREGENZ


Bregenz Austriako mendebaldeko hiri bat da, Vorarlberg estatuko hiriburua. Hiriak 28.000 biztanle ditu, Konstanz lakuaren ertzean dago, Lindau hiri alemaniarretik eta Suitzatik gertu.

FESTSPIELHAUS, MEISTEKONZERTE ZIKLOA

Bregenzeko Festspielhaus 1980an eraikitako zentro bat da, 2005/2006an berritua, eta sarri hartzen ditu barne hitzaldiak eta kongresuak, ekitaldi kultural eta sozialak, opera-emankizunak eta Vorarlbergeko Orkestra Sinfonikoaren kontzertuak. Zentroko Areto handian izango da Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua, eta 1.656 eserleku ditu.

Zentro hau bereziki ezaguna da Bregenzeko Musika Klasikoaren Udako Jaialdiaren egoitza delako. Europako aintzira-eszenatoki handienez ospatzen da, Konstanz lakuaren gainean, eta ia 7.000 lagunentzako harmaila ikusgarria dauka.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Meisterkonzerte zikloan parte hartuko du.





EUSKADIKO
ORKESTRA